

# Jesus Guridiren *El Caserío* zarzuela eta Lauaxetaren poesia\*

Kortazar, Jon

2012. urtean, Esteban Urkiaga Lauaxetaren hilketaren 75. urtea bete da. Ez da inolanhiko unea poeta bizkaitarraren poesia eta bizitza gogoratzeko. Baina 2005. urtean haren jaiotzaren 100. urtemuga era aberatsez ospatu zenez, aurtengoak ospakizun-maila apalagoa izan du. Euskal Pizkundeari egindako gorazarrearen estalpean, Mungiako udalak hainbat ekitaldi osatu ditu urte osoan zehar, hilabete bakoitzean ospakizun desberdin bat eratuz. *Zurgai* aldizkariak ere gogoan hartu zuen poetaren lanaren oroigarria, baina aitortu beharko dugu omenaldiaren maila apala, orain zazpi urtekoarekin konparatuz gero. Baina ezin da ahaztu *RIEV* aldizkariak ere gogo betez hartu duela poetaren lana gogoratzea.

Nire aldetik, esan behar dut hainbat aldiz azaldu dudala zein izan den poeta bizkaitarraren poesiaren ibilbidea eta, beraz, zerbait berria eskaini nahi nion, lehen-lehenik nire buruari, nekatu xamar bainago poesia horren bideak aztertzen, eta zerbait berria behar baitu nire jakin-minak ere, eta bigarrenik irakurleei, horiek ere nekatu xamar imajinatzen baititut entzundakoa entzundakoaren gainean berriz entzuten. Horrexegatik dator hurrengo orrialdeetan egin nahi dudana arte desberdinen arteko lotura.

Lan honek arte desberdinen arteko konparaketa egin nahi luke. Alde bate-tik zarzuela bat –eta zarzuela hori sortzeko osatu den libretoa– eta bestetik Esteban Urkiaga Lauaxeta poeta ezagunaren poesia. Bien arteko konparaketa horrek hainbat bide emango lituzke arteen arteko elkarriketaz aritzeko asmotan bagaude. Gaurko lanean bide bi jarraituko ditugu: sinbolo nazionalen egile biek sorreran izan duten garrantzia, eta modernismo berantiarren estetikaren agerpena lan bietan. Nazioaren eraikuntzaren alde politikoak landuko ditugu, eta ondoren, zarzuelan eta bizkaitarraren poesian agerian geratu diren zenbait elementu aztertuko ditugu.

---

\* Lan hau Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitateak babesten duen GIC 10/100 eta Eusko Jaurilaritzak sostengatzen duen IT 495/10 Ikerketa Proiektuen barnean kokatzen da.

## 1. Jesus Guridi eta Esteban Urkiaga, artea nazio bidean


Europako nazioen mendea den XIX.ean, nazio bakoitzak bere nortasun poetikoa eta politikoa lortu nahi izan zuen. Horretarako, nazio bakoitzak bere nortasuna berreskuratu nahian eta beste nazioetatik urruntzeko ahaleginean, besteek egiten zutena errepikatu zuen, paradoxa sortuz; hau da, besteengandik banatzeko besteena hartu zuten. Baina nazio bidean Itamar Even-Zohar (1994) ikerlariari ongi deskribatu duenez, nazio izateko orduan, beharrezkoak dira zenbait “indispensalia”. Anne Marie Thièssek (2010) ere ongi azaldu du nazio izateko beharrezkoa dela no-

labaiteko “nortasun kit” berezia: bandera (ikurrina), himnoa (“Ereserkia”), hizkuntza zein erlijioa.

Baina “indispensalia” horien artean berebiziko tokia hartu du arteak nazioak sortzeko unean.

Jesus Guridik (Gasteiz, 1886-Madril 1961) bere lan musikalaren bidez saiatu zen euskal nortasun musikala adierazten eta euskal senaz osaturiko lana gauzatzen. Esteban Urkiagak (Laukiz, Bizkaia, 1905-Gasteiz, 1937) bere lan poetikoan atarietan zein helburu zuen garbi eman zuen aditzera. “Mi idioma nacional es el euzkera” (*Arrats Beran*, 1935, eranskina), eta poesia euskara handitu nahian egin zuen.

Guridiren biografiari errepaso txiki bat emanez gero (Salaberri 2005), bat-batean ikusiko dugu nolako lotura izan zuen nazionalismo lainotsuarekin. Sabin Salaberrik (200: 9), Sopeñaren aipua ekarriz,



Jesus Guridi. c. 1930 (Eresbil Artxibategia)

idatzi du: garaiko euskal musikak “benetako nazionaltasuna bilatu [zuela] europar mosaiko musikalean inoren kalte gabe kokatzeko”. María Nagorek askoz ere argiago idatzi du Guridiren eta nazionalismoaren arteko loturaz:

Hay que constatar la estrecha relación existente entre los intentos de creación de la ópera vasca, el movimiento coral y el nacionalismo. Las primeras óperas de Guridi, *Usandizaga*, *Inchausti*, fueron creadas por encargo de la Sociedad Coral de Bilbao y para la Coral con la finalidad de conseguir “el resurgimiento de la música vasca”; los coros tenían en ellas un papel fundamental; la temática empleada transcribía fielmente los temas desarrollados entonces por el nacionalismo: exaltación de la autenticidad vasca, insistiendo en sus aspectos primitivos y arcaicos (1998: 77).

Eta oraindik garbiago ondorio gisa:

La obra de Guridi se encuadra sin lugar a dudas en el marco de una estética nacionalista común a toda su generación y extensiva a la mayor parte de la música española hasta los años cuarenta (1998: 79).

Ezaguna da Jesus Guridi herri kantez baliatu zela bere *El Caserío* zarzuelako musikari enborra emateko. Herri kantuak (Pello Josepe, bertsolarien arteko ezta-bidak...) herri kutsua eman zioten *El Caserío* lanari. Euskal sena eman nahi izan zuen zarzuelak. Euskal arima adierazten zuela idatzi zen garaiko kritiketan.

Baina jakin badakigu euskal arima adierazteko forma hori zabaldurik zegoela Europako beste herrialdeetan. "Diez melodías vascas" (1941) idatzi zuen Jesus Guridik berak. Era berean, Errusiako melodietan oinarriturik idatzi zuten musika Borodinek, Glinkak, Rachmaninovek, Rimsky-Korsakov, eta Kuik. Gainera, Glinkaren maisutzaren pean "bost nazionalista" gisa ezagunak egin ziren Modest Mussorgsky, Nikolai Rimsky-Korsakov, Alexandr Borodin, Tsesar Kui, Mili Balakirev, horiek ere herriaren sustraia maite zuten beren musika egiteko orduan.

Herrialdez aldatzen bagara eta Txekian jarri arreta, hor dugu Dvorak. Horren musika entzuten badugu, kantu eta dantza txekiarretan oinarriturik dagoela ikusiko dugu, eta "Dantza eslaviarrak" eman zituen argitara. Smetanaren agerbidea ere ezin da ahaztu. Beste adibide bat ematearren, Bela Bartoken "Dantza errumaniarrak" lana gogora ekar dezakegu.

Jesus Guridiren musikan aditua den Arozamenak idatzitakoa ekartzen du gogora Maria Nagorek (1998: 81):

Nacido en Vitoria y criado en Bilbao, formado musicalmente después en París y en Colonia, su naturaleza vasca se afirmó, se acendró constantemente. Pero ya estaba íntegra en su Leyenda vasca. Si alguna concomitancia extranjera podemos hallar en esa obra no es, ciertamente, la grandilocuencia de Debussy: es el puro ingenuo nacionalismo. Tanto que la Leyenda vasca no haría mal papel en la serie de sus poemas que Smetana compuso con el título de Mi patria.

Ondoren hitz biribilekin berresteko:

"La referencia a Smetana no es gratuita desde el punto de vista estético, como tampoco lo son otros comentarios que comparan el colorido orquestal guridiano de las Diez melodías vascas con el de Rimsky-Korsakov".

Ikusten dugunez, nazionalismo musikalak molde bera erabili zuen hizkuntza desberdinetan. Baina Nicolás Ruiz Descampseri kasu eginez gero, Jesus Guridiren nazionaltasuna zalantzarik gabe kulturala izan bazen ere, erakunde politikoeekin lotura estuagoa izan zuen XX. mendearen hasierako urteetan:

Aparte de su colaboración con el diario *Euzkadi* para la publicación de cantos vascos, Jesús Guridi acompañó al órgano al orfeón de las Juventudes Vascas durante la misa en honor a su patrona, la Inmaculada Concepción. Véase la crónica del acto en *Euzkadi*, 16 de diciembre de 1919, p. 2 (Ruiz Descamps, 2010: 159, oin oharra).

Egile horrek (2010: 162) oso zehatz adierazi du nolako lotura estua izan zuen Jesus Guridik Ebaristo Bustinza, Kirikiño, euskal idazlearekin, Santa Agedako kantak biltzeko, musika berritzeko, letra berriak jartzeko orduan. Bilboko Eusko Gaz-

tedi erakundearen inguruan ibili zen Jesus Guridi. 1913 eta 1914. Urteen artean *Euzkadi* egunkariak Aita Donostiak eta Jesus Guridik Bizkaian bilduriko 46 abesti argitaratu zituen, eta helburua ikertzailearentzat oso garbia zen:

Con estas publicaciones se consolidó lo que se podía llamar la construcción de un repertorio musical nacionalista vasco, de naturaleza política, que iría en paralelo al repertorio del nacionalismo musical vasco, de naturaleza más cultural, intentando siempre confundirse con él. Eran como dos líneas paralelas que los nacionalistas vascos intentaron juntar lo más posible para lograr la ilusión de una sola línea (2010: 168).

Nicolás Ruiz Descampsek beste adibide batzuk ematen ditu Jesus Guridik erakunde nazionalistekin zuen lotura argitzeko asmoz, eta ez da txkiena “San Juan de Portaletaña” abesti herrikoiaren birsortze prozesua. Herri folkloreko abestia izate-tik, Jesus Guridik abesti nazionalista bihurtu zuen ahapaldi berri bat gehituz:

“Deun Jon’az zorgin, eltxo ta zorri  
gustjak dira erretan,  
soloetako landara onak  
garbi geratu dattezan.  
Gure Aberri ekandu onak  
gustiz garbirik izteko,  
itz dongea ta jantza zikiña  
erre daiguzan betiko.  
¡Gora, gora, gora garbitasuna!  
¡Aupa, bizkor egin subari bira!  
¡Ujuju!  
¡Deun Jon’az guaz gu!”

Ikertzaile horrek ikusi duenez, aberriaren kontzeptua ageri da aldaki berrian, eta nazionalismoaren garbitasunaren inguruko zenbait topiko ere bai: garbitasuna bera, hitz zatarraren eta txarraren arbuioa, eta batez ere “ekandu garbien” gorai-pamena. Ikertzaile horrek, baina, “ekandu” hitza gaizki itzultzen du, “fruitu” gisa, eta jakina denez, ez da hori hitzaren zentzua, “ohitura” baizik. “Ohitura garbien” helburua nazionalismoaren helburu nagusia zen, euskal mundua eta erdal mundua banatzeko asmotan. Abestiaren zentzuaz, beraz, ahapaldia nazionalismoaren ideologiaren isla izango litzateke.

Beste alde batetik, garbi dago Esteban Urkiaga Lauaxetaren praktika literarioa lotuta dagoela, alde batetik Jose Ariztimuño Aitzolen ideia literarioekin, eta, bestetik, haren bidez, baina ez haren bidez bakarrik, nazioaren eraketarekin.

Even-Zoharrek adierazi duenez:

La ‘literatura’ ha resultado poco menos que indispensable para la creación de las ‘naciones’ aludidas por este nombre. En cada uno de estos casos, un pequeño grupo de personas, que llamaré ‘agentes socio-semióticos’, popularmente conocidos bajo la denominación de ‘escritores’, ‘poetas’, ‘pensadores’, ‘críticos’, ‘filósofos’ y similares, produjeron un enorme corpus de textos con los que pretendían justificar, sancionar y sustentar la existencia de lo deseable de ella, el valor y la pertinencia en una entidad creada a la que se aspira –es decir, de la nación alemana, la nación búlgara, la italiana, etc. Al mismo tiempo, también ponen en orden el conjunto de textos y nombres que en principio podrían ser útiles a la hora de justificar su causa (1994: 369).

Ez dago zalantzarik Aitzolek nazioaren ideia zerabilela buruan euskal poesia-aren aldeko kanpainak egin zituenean. Nazioaren aurrelari gisa ikusten zituen poetak, eta bide horretatik, *Bide barriak* zabalduz agertu zen Lauaxeta poetaren lana.


Aitzolek helburu jakina eman zion euskal poesiari: “el alma característica euskotar” (1930) azaltzea eta adieraztea. Baina garbi jakinda poesiaren bidea nazioaren eraikuntza zela, lehendabizi. Hona hemen Aitzolen lanetatik harturiko zenbait izenburu: “Mistral restaura un pueblo” (1931), “Mistral immortaliza a su patria” (1931), “Las armoniosas poesía de J.L. Runenberg son la expresión acabada de los sentimientos de unidad nacional finlandés (sic)” (1931), “Los grandes forjadores de las modernas nacionalidades han sido poetas” (1931), “La poesía y el renacimiento filipino” Rizal (1931) poeta eta politikoaren omenez idatzitako artikululu batean. Aipaturiko denek poesia eta nazioaren arteko lotura azpimarratzen dute eta esanguratsua da “Poetak izan dira nazionalitate modernoaren sortzaileak”.

Giro kultural horretan agertuko dira Lauaxetaren poesiaren bideak.

## 2. *El caserío* Zarzuela eta Lauaxetaren poesia

Arte mundu desberdinetako lanak konparazten ditugunean, bata musika zein eszena mundukoa eta bestea poesiaren mundukoa, elkarriketa intersistemikoaren mugetan jartzen garela esan ohi dugu, hau da, sistema artistiko biren konparaketaren mugetan. Euskal Literaturan, beste askotan gertatzen den bezala, askotan aipatu da poesiaren eta pinturaren arteko lotura, askotan poesiak objektu artistiko baten deskribapena edo margo baten deskribapena hartzen duelako gai gisa, Homerok ezkutueta irudiak deskribatzen dituen bezala. Enric Bou-k (2001) lau joera mota agertu ditu pinturaren eta poesiaren arteko harremanetan: a) Benetako arte lan baten harrera estetikoaren azterketa literaturan; b) ekfrasia: erreferentzia bisualaren hitzez egindako adierazpena, oso erabilia garai klasikoetan eta errenazimenduan, baina modernismoak ere askotan erabili zuen; c) pinturari egindako omenaldia; d) poesia bisuala. Ekfrasia da gehien landu dena, ziur aski euskal poesian Jokin Zaitegiren “Tori ene edontzia” poematik hasi eta Bitoriano Gandiaga eta Juan Mari Lekuonaren poesiara heldu arte.

Gure azterketa honek helburu nagusi bat eta hiru oztopo ditu. Helburu nagusitzat, Esteban Urkiaga Lauaxetaren poesian eta *El Caserío* zarzuelan agertzen diren zenbait ezaugarri kultural bateratsu agertzen direla erakutsi nahi luke; batez ere modernismo zaharreko estetikatik datozen zenbait elementu sinboliko eta ideologiko batera agertzen dira lan biotan. Oztopoak, baina, ezin dira alde batera utzi: lehena kronologikoa da. *El Caserío* 1926. urtean antzeturiko lana dugu; Lauaxetaren poesia hainbat beranduago agertu zen, baina gure ustetan aldea handia izan arren







Obra completa  
en  
**2**  
discos



ROMERO Y FERNANDEZ SHAW

# El caserío

J. GURIDI

PRINCIPALES INTERPRETES

**PILAR LORENGAR**

**MANUEL AUSENSI y CARLOS MUNGUIA**

Coro de Cámara del Orfeón Donostiarra y Gran Orquesta Sinfónica

Director: ATAULEO ARGENTA

Alambra zigiluarekin Donostiako Columbiak argitaratutako diskoaren azala. 1962 (Eresbil artxibategia)

**Alhambra**  
MCC 30023/24

**Alhambra**  
MCC 30023/24

elementu kultural berberak edo antzekoak dira bietan, forma desberdinetan agertuak. Bigarrena egileen kontua da, konparaketa hitzen artean egingo dugu, *El Caserío*ko testuaren eta Lauaxetaren poesiaren artean, beraz konparaketa gehiago da Federico Romero eta Guillermo Fernández Shawen testuaren eta Lauaxetaren artean; zuzen-zuzenean idazle bion *El Caserío* eta Lauaxetaren poesia aztertuko dugu, baina ezin da alde batera utzi Guridiren lana. Artikulu honetan, Guridik zeresan handia izan zuela zarzuelaren tonuaren eraketan defendatuko dugu, batez ere Sabin Salaberrik (2011) "Trío de autores" gisa aipatzen duen testuaren sorkuntza lanean, eta hirurek egindakoari behin eta berriro: "Colaboración fructífera" deitu dio. Beraz, Jesus Guridiren *El Caserío* lanaz hitz egiten jarraituko dugu, nahiz eta jakin obrak adierazten duen mezua eta haien formak hiruren lana direla, eta batez ere, logikoa denez, letragileena. Hirugarren oztopoa eraginarena da; ez gara adierazten ari Lauaxetaren poesiak *El Caserío*ren eragin zuzena izan zuenik, baizik eta lan biak, zarzuela eta poesia giro kultural bereko eta zuzenean Espainiako modernismoaren ondorengo estetika fruituak direla eta, neurri batean, musikagilea eta poeta bat eginda zeudela zenbait puntutan. Honetan Fernando Cabok eta María Rabadek adierazi dutenari jarraituko diogu: eraginekin baino gehiago analogiarekin lan eginez:

La trama conceptual del comparatismo conoce así un progresivo desplazamiento de la noción de *influencia* en favor de la noción de *modelo* o de *analogía* (Cabo, Rábade, 2006: 379-380).

Eredua garbia da, objektu kultural biek, Guridiren *El Caserío* eta Lauaxetaren poesiak, modernismoaren ondorengo zenbait ideia jarraitzen dituzte, hain zuzen ere nazionalismoaren ideologiaren bideetatik gorpuzten zen estetika zelako, ideologian kontserbatzailea eta forma artistikoetan herri kulturari lotua. Lan honetan lau puntu besterik ez ditugu aztertuko; bi sinbolo eta gai aldetikoak dira: baserria eta landa mundua, herri literaturaren eragina; eta beste bi ideologiaren eta estetika mugetan geratzen direnak: gaztaroaren goraipamena eta emakumearen irudia.

### a) Baserria eta landa mundua

Hona hemen Sabin Salaberrik egin zuen *El Caserío* zarzuelaren argumentuaren laburpena:

La idea central de los creadores de *El Caserío* es cantar el alma de un pueblo, el vasco, con los elementos, melodías y ritmos que le son propios, sin recurrir a formas de otras latitudes.

Para ello sitúan la acción en el imaginario pueblo de Arrigorri, en el entorno del caserío "Sasibil", cuyo dueño, Santi, preocupado por el futuro de su amado caserío, depositario de arraigados valores ancestrales, se las ingenia para suscitar una chispa de atracción mutua entre sus sobrinos José Miguel, pelotari, y la dulce Ana Mari, de cuya madre estuvo secretamente enamorado. Pero no lo va a tener fácil: José Miguel, que acaba de llegar de América, es un vividor, un juerguista empedernido, que se mofa de los reproches de su tío Santi y de su prima Ana Mari: él sólo piensa en gozar del momento, porque "tiempo habrá en lo porvenir, de atender a la virtud [...] José Miguel, triunfador del partido, reflexiona y toma conciencia de sus verdaderos sentimientos, cantando una deliciosa romanza de ribetes sudamericanos: "*Yo no sé qué veo en Ana Mari*" [...] El tercer acto concentra el mayor suspense y dramatismo de la obra. La naturaleza, el monte y la lluvia crean el



ambiente para el lamento [...] Poco a poco cada cosa se coloca en su sitio; se van aclarando conceptos y situaciones; y el enredo se encamina hacia su resolución final en medio de grandes celebraciones.

Bukaeran Santiren plana betetzen da Jose Miguel Ana Marirekin ezkontzen da baserriaren iraupena ziurtatuz. Idilioa eta baserriaren nagusitasuna horra hor zarzuelaren zutabe ideologiko nagusiak. “Sasibil, mi caserío” romanza da obraren zatirik ezagunenetarikoa, bere indar sinbolikoa nagusia delako.

Baserria, obran zehar, batasunaren, identitatearen, balio tradizionalen iraupenaren eta bizitzaren jarraipenaren sinboloa da. Kuriosoa da, baina Santik mundu hori bere koordinada pertsonaletan jartzen du lehenik. Eta maila pertsonal horretan sortzen dira baserriaren inguruko metafora nagusiak: bazterra, sehaska, habia, babesa, altzoa... laster bere historiaren testigu gisa erabili ohi du baserria, Sasibil izan zen emakume batekin izan zuen ilusioaren jakitun. Deigarria da, baina deskribapenean baserriak emakumearen sinbologia hartzen badu ere, ez da inondik inora tradizioaren metaforarik erabili. Gehienbat erlijioarekin egiten da loturaren bat, baserria “piadoso” eta “templo” dela agertuz. Dena dela, zarzuelaren ekintzan pisu handia du baserriak; transmisioaren gakoa, nori utzi baserriaren jabetza, bihurtu da tramaren angelu nagusia. Eta transmisioa eman behar zaio Santiren balioetan sinesten duen norbaiti, hau da Ana Mariri Jose Migeli baino lehenago. Gogoratuko dugu, hala ere, romanzaren hasiera:

“Sasibil, mi caserío, tibia cuna de mi niñez,  
Alivio suave de mis dolores  
De mis amores orgullo y prez  
Sasibil, rincón piadoso  
Templo y tumba de mi ilusión  
En tu regazo de amable nido...  
¡Cuánto ha sufrido mi corazón!”.

Sasibili egindako elegia honek badu zer ikusirik Lauaxetako *Arrats Beran* liburuan argitaratu zuen “Etxe hori” poemarekin (AB, 25). Garbi dago Jose Maria Agirre, Xabier de Lizardiren poesiaren zordun dela poema hori. Urrunetik egindako deskribapena dugu hor. Egun betea aurrera nola doan deskribatu du poetak, eta egunaren argia aldatuz doan heinean nola aldatzen den giroa; hor ere, baina, erlijioak badu bere zeresana, zeren bukatzeko, edertasunaren aurrean, poetaren nitasunak otoi egiten du:

“Ikus-eziñak dozan gotzonak  
Joten yuezak amets-kanpayak.  
¡Gabaren begija dakan urdin!  
¡Ego-ertzi, otoririk, egon-ezin!”.

Baserriaren sinboloa ezin da landaren gaitik banandu, erruralismoa giro aproposa da, bai zarzuelan, bai poesian, ondoren aztertuko dugun herri-kultura eta herri-jakituria adierazteko. Modernismoak ez zuen hiria maite, eta horregatik landa giroan jartzen zituen gaiak. Ikusi dugu Lauaxetaren poema, azken batean, izadiaren eta horren erdian kokaturik dagoen etxearen deskribapena besterik ez dela. Hiririari egindako muzinaren arrazoiak hainbat dira, baina batek hartu du besteen gaine-



tiko tokia: idealismoaren zantzuak. Modernismoaren sustraietan idealismoa dago, eta pentsakizun filosofiko horren erraiak. Idealismoak materialismoaren aurka egin zuen beti, eta izadia edertasunaren sehaska gisa ulertzen bazuen, hiri materialaren sorlekutzat zuen, diruaren erreinutzat, eta neurri batean itsuskeriaren tokitzat. Naturak agertu ohi duen egoera desberdinen aurrean, hiriak uniformitatea agertu ohi du modernistentzat. Gainera, ezin da ahaztu, modernista gehienak hiritarrak izanik, izadian eta herri txikietan exotismo puntua aurkitu zutela.

Horregatik ez dago hiriaren aipamen larregirik Lauaxetaren poesian, ondoren aipatuko dugun salbuespena izan ezik. Horregatik kokatu dute zarzuelaren ekin-tza Arrigorri herrian.

## b) Herri literaturaren eragina

Idealismoaren pean sortu zen mugimendu erromantikoarentzat oso esanguratsua zen herri kulturaren eragina. Guridirentzako herri musikak eta Lauaxetarentzat herri literaturak eragin handia izan zuten bakoitzaren mundu estetikoak sortzeko orduan. Sabin Salaberrik (2011) oso zehaztasun handiz adierazi du zein den herri musikaren presentzia *El Caserío* lanean:

El autor, experto en utilizar materiales del folklore en su música sinfónica o de escena, mezcla con maestría melodías populares con temas originales perfectamente asimilados al sabor de aquellas. “Con el trébole” toma su melodía de “Gabon gabea oitutzen dogu”; el preludio del segundo acto está basado en el “Zortziko de San Juan”; “Pello Joshepe” es directamente una canción popular; el dúo de Ana Mari y José Miguel del tercer acto se basa en la canción “Oi Gurutzea [...]” Guridi utiliza con frecuencia ritmos de danzas, como la “espatadantza”, el “ariñ-ariñ” o la “biribilketa”. Destaca especialmente el “zortziko”, que aparece en muchas páginas, amoldado al carácter de cada acción: evocador en la “Romanza” de Santi, con carácter épico en el “Prólogo” del segundo acto, con fuerte sabor popular en el “Desafío de los bertsolaris” y pujante en el arranque del final del acto segundo.

María Nagorek, bere aldetik, oso argi utzi zuen herri musikaren eragina Guridiren musikan. Guridik bere “autopoetika”, musika sortzeko barne indarra, azaldu zuen San Fernando Akademian sartzeko egin zuen hitzaldian. Eta testu hori da ikerlariak ugari erabili duena, Guridik herri musikatik jaso duen eragina azaltzeko asmoz.

La utilización del dato popular no es un fin, sino un medio. A Guridi no le interesa la melodía popular como musicólogo sino como compositor: únicamente en su aspecto “estrictamente estético y emotivo”, como “fuente de belleza” y “elemento de que el compositor se sirve para crear su obra”. En cuanto a la utilización -cita literal o empleo de giros característicos- es indiferente si sirve para crear belleza (1998: 80).

Garbi dago euskal herri-musikaren erabilpena ez zela izan letragileen eragina, berak gogoz eta adimenez harturiko erabakia, bere musikan lehenik, *Mirentxu* operan adibidez, erabili izan zuena. Zentzu horretan jarraitu du Nagorek honela idatziz:

Sin embargo –vuelve a insistir– lo único que interesa es “producir belleza indiscutible, sean cuales fueren los medios utilizados para construirla”. Guridi no valora la melodía popular por sí misma: es una “piedra sin pulimentar que necesita de la mano del artista que le dé forma”. El músico “crea de nuevo” [recrea] los motivos populares: les da una expresión, matiz, amplitud que no tenían “o que permanecían ocultos para los demás”. El

“sello de lo verdaderamente representativo como música popular de un país o región” –desde el punto de vista de una auténtica valoración estética– lo dan los compositores, “hayán o no empleado melodías de su país” (1998: 80).

Jesus Guridik planteatu duenak zerikusi handia du Lauaxetak egiten duenarekin. Herri lirika erabili poesia berria egiteko. Hor dago materiala, herri literaturan, eta Lauaxeta, ezaguna denez, herri literatura biltzeaz arduratu zen *Euzkadi* egunkariaren bidez, baina gero egileak bere sena eman behar dio herritik hartutakoari.

Herri literaturaren eta zuzenago herri lirikaren eragina oso zehatza eta zuzena da bizkaitarraren poesian. Jada Juan Ramón Jiménezek argi utzi zuen herri lirika herri literaturaren generorik aristokratikoena zena, eta herrira, eta haren espresio moldeetara, itzuli behar zela literatura unibertsala egiteko asmotan. Azken batean herri literaturara joz, erromantizismoak idealismoaren eraginez agindu zuen bidea jarraitzea besterik ez zuten egiten modernistek eta nazionalistek (zer ziren bestela modernistak, Espainiako nazionalistak baizik?).

Euskal poesiaren definizioa egin zuenean Aitzolek garbi utzi zuen poesia berriak herriaren bidea jarraitu behar zuela, eta garbiago kopla zaharraren bidea. Jakina da Aitzolek martxan jarri zituen Euskal Olerti Egunen fruitu gisa agertu ziren poetek ez zutela eman berak espero zuen eragina:

No debe haber poesía sin claridad ni transparencia. Porque lo conceptuoso, lo esotérico, tanto de concepto como de expresión y de palabras, produce fatiga, cansancio, y muchas veces como consecuencia lógica, el hastío. Y donde todo eso se produce, no puede haber placer estético. Y sin placer estético no puede producirse la belleza en la imaginación de los lectores (1987: 51).

Horregatik 1933. urtetik aurrera herri poesiaren bidea eta batez ere kopla zaharraren eragina erakutsi zien poetei, hori erabiltzera bultzatuz. Honela goraiatu zuen Patxi Etxeberriaren poema, hark kopla zaharra erabili zuenean: “Sólo nos satisface señalar una senda que debe ser restaurada y que es galana, bellísima y hermosa, además de ser nuestra” (1987: 52).

Kopla zaharraren defentsa sutsua egin zuen Aitzolek: “Existía en la poesía popular una joya inapreciable. Era ésta la expresión auténtica, conforme al genio del alma euskaldun, de la belleza” (1987: 469-471).

Eta garbiago artikulua beraren beste aipu honetan:

A los literatos españoles y franceses a quienes hemos tenido ocasión de manifestar esta peculiar estética de nuestra poesía popular han quedado (sic) profundamente maravillados de su originalidad, de su elegancia, de su enorme poder de expresión.

Al estudio de este estética peculiar nos hemos dedicado, y dejamos ya nuestras ideas, todavía embrionarias, reflejadas en un trabajo literario euskaldun.

Ziurrenik, lehen aipatu dugun “Euskal olerti-kera berezia (estetika)” litzateke aipatzen den euskaraz idatzitako lan hori. Eta oraindik argiago:

¿Se ajustarían los excelentes poetas líricos de hoy a recoger el estilo privativo euskaldun tal y como apareció en los kopla zaharrak o habían de modificarlo, para tal vez afirmarlo y elevarlo de rango?.

Laburbilduz, poetak kopia zaharra erabili behar du eta herri estetika berezi hori, euskaldunaren arimaren isla den hori, goratu egin behar du, findu eta edertu. Azken batean Jesus Guridik nahi zuena:

Guridi no valora la melodía popular por sí misma: es una “piedra sin pulimentar que necesita de la mano del artista que le dé forma”. El músico “crea de nuevo” [recrea] los motivos populares: les da una expresión, matiz, amplitud que no tenían “o que permanecían ocultos para los demás” (Nagore 1998: 80).

Herri kulturaren beste eragin nagusi bat tipoen agerpena izan zen. Jesus Guridiren zarzuelan bertsolariak, pilotariak, dantzariak, txistulariak agertzen dira, denak osatzen dutelarik Euskal Herriko irudiaren atal nagusia.

Beste horrenbeste gertatu zen Lauaxetaren poesian. *Bide barriak* lehen poema liburuan nitasunaren agerpena eta ideia abstraktuak nagusiak izan baziren, *Arrats Beran* liburuak herriko pertsonaien trazak agertuko ditu, poemak askoz ere narratiboagoak dira eta pertsonaiak garbi geratu dira euren izaeran marraztuak. Orrialdeetan zehar ikusiko ditugu neskatxa, neskatxo gorritzak, ehiztaria, ezkontzara doazen gazteak, gurtzaina, espetxean dagoena, itsas lapurra, artzaina, abeslaria, espainiarra, mutxurdina, itsas ondoan bizi direnak, sineste bakoa, hiru zaldunak, langile eraildua, artzainaren heriotza, etxeko alaba, txo mozkortua, tabernariaren alaba... Herriko tipoen tapiz aberatsa.

Aitzolek agindu zuen kopia zaharraren bidez adierazi behar zuela bere poesiaren muina euskal olerkariak, eta areago behar-beharrezkoak zela euskal pertsonaien eta tipoen agerpena euskal arima adierazteko. Honela goraiatu zuen Zaitzeginen poesia Aitzolek:

Euskalerriko artzai eta arrantzaleak ditu kantagai Zaitegi yaunak bere “Tori nire edontzia”n. Artzai eta arrantzalea izaki euskaldunetan gizonik yatorrenak gure odolaren bikaintasuna adierazteko [...] Bertso oien mamia orixe degu: gure-guretarren izaera kantatzea (1986: 78).

Testuak adierazten duenez, horien agerpenarekin irabazi baino ez zuen egiten poesiak, “gure-guretarren” arima agertuz. Pinturari buruz hitz egiterakoan ere, Aitzolek oso gogoan du euskal paisaiaren eta euskal tipoen agerpena. Kaperotxipiz ari dela, Aitzolek berrindartu egiten du poesiak eta euskal poesiak duen iritzi erromantikoa: Ez da nahikoa pintorea euskalduna izatea edo hark euskal gaia tratatzea, oraindik beste baldintza bat bete behar du arte-lanak: euskal arima kolektiboak ikusi duen bezala ikustea errealitatea; eta ikuspegi hori euskal aho poesian gertatzen da soilik. Beraz, baldintza horietara hurbiltzen bada egilea, gero eta arte euskaldunagoa egingo du:

Hay en estos cuadros un caudal artístico racial notorio. Es un cuadro vasco no porque lo sea el autor o porque solamente lo sea el paisaje o el tipo que se reproduce. Claro está que todo ello influye notoriamente. “Se requiere además que el espíritu que aliente en la obra artística y la inspiración que la cree se ajusten a los cánones estéticos del alma colectiva vasca” (1986: 170).

Euskal arima kolektiboa agertzeko asmotan euskal tipoak agertu zituzten beren obretan Jesus Guridik eta Esteban Urkiagak, Lauaxetak.

### c) Gaztaroa

Gaztaroaren gaia oso garrantzizkoa zen garai hartan. Ez da ahaztu behar kirolaren bidez indartu zela Olinpiadak martxan jarri ziren garaitik gaztaroaren ideia gizartean. Gazte izatea balioa zen eta gaur egun den bezala, garai hartan ere gaztaroa balio garrantzitsua zen.

Jesus Guridiren obraren letragileek oso garbi utzi zuten gaztaroaren indarra Joxe Migelen pertsonaiaren bidez. Etxetik kanpo gaua pasa ondoren datorrenean bere Ana Mari lehengusinak errieta egiten dio gaztaroa galdu egiten duelako:

“J.M.: Ana Mari tu también me condenas por vivir?

A.M.: Por gastar tu juventud sin provecho para ti”

Eta orduan, Jose Migelek bere gaztaroaren defentsa egiten du oholtzaren gainean. Hona hemen bere kantuaren sena:

“Nadie sabe defender la triunfante juventud

Quiero beber la savia primaveral

Quiero gozar sin freno de mi salud [...]

Si ahora por mi suerte soy sano y fuerte

Déjame que derroche la juventud”

Begira dezagun orain nola aipatu zuen gai bera Lauaxetak, Manuel Machadoren poesiaren eragin zuzena agertu zuelarik. Gaztaroaren goraipamenaren inguruan poema bi ditu Lauaxetak *Arrats Beran* liburuan, biak Gaztelako poetaren bidea segituz eginak: “Berto zarrak” (AB, 24) eta “Kanta ariña” (AB, 34) dira poema horiek. Bietan bizitzaren aldeko kanta sortu nahi du poeta bizkaitarrak.

Lehenean etorkizunak ekarri dezakeenaren aurrean oraina bizitzea proposatzen du:

“¡Ederren

Hogei urte lerdin

Gorputz baltziskan diranian;

Bixitzan

Zoriontsu gadixan

Bihar dogunaren gauzeza!”

Biharko eguna den gauza ezaren aurrean gaurko eguna gozatzeko mezua dabil Lauaxetak. “Kanta ariña” ere gaztaroaren omenez egindako poema dugu, bizitzari egindako gonbitea:

“Etzunik

Edan daidan neurri barik.

Oindiño

Soin onek mun-mila dio”

Edanaren eta musuaren agerbidearen artean, Lauaxetak hedonismoz beteriko bizitzaren aldeko poema utzi zigun bere testuetan.

### d) Emakumearen irudia

Entzun dezagun Santi Sasibili kantatzen eta kontatzen maitemindu egin zela baina maiteak Santiren anaia maite zuela, eta orduan bera apartatu eta joan egin zela:



“Una mujer mi vida iluminó  
con claridades y amanecer.  
Era una estrella que yo codiciaba  
No me cansaba de soñar con ella.  
Triste de mí, la estrella se apagó,  
hermosa dicha la que perdí,  
perdí la ilusión  
que tanto acaricié [...]  
Una mujer, un hada del hogar  
Nunca ha venido mi vida alegrar  
No logré tanta felicidad  
Sin alma mi vida está”

Modernismoak agertu duen emakumearen irudia idealismoz osatua da. Ikus ditzagun zeintzuk diren pertsonaiak erabili dituen metaforak: argia, izarra, ametsa, eta batez ere “etxeko miragarria”. Santiren pertsonaiak emakumearen irudi idealala agertu du. Modernismoak bazituen emakumearen irudi zenbait: idealala, sexuala ere bazegoen; baina Euskal Herriko artean agertu den emakumearen irudia idealala da, aingeru bihurtua dena.

Modernismoaren emakumearen irudiaren eskemak Walter Scotten nobeletan du bere iturria. Han emakume mota bi agertu ziren: hilehoria, asexuala, idealtasunetik hurbil; eta beltzarana, materiari eta sexuari lotua. Ondoren Prerrafaeliten pintura eskolak egokituriko emakumearen irudia idealizatua zabaldu zen Rossetti pintore eta poetaren lanaren bidez.

Santik agertu duen emakumearen irudia da Lauaxetak erabili duena ezaguna egin zuen poeman. “Maitale kuttuna”; berez, poetak oraindik ezagutu ez duen pertsona bati idatzia da, eta poeta sinbolistek maite zuten lana da. Iturri gisa Sully-Proudhomme Nobel Sariaren lana izan zuen aurrean Bizkaiko poetak. Baina hainbat poetak jorraturiko lana da. Testuan emakumearen irudiaren idealizazioa azken punturaino eramanez du bizkaitarrak. Oraindik ez du ezagutu; ez du, beraz, gorputzik, ez soinik, ez ezeren antzik, irudi bat da, poetak sortu duen irudia, ideia da, guztiz abstrakzioa, eta erotismotik urrun marraztu du, zeren haren musuak, otoi bihurtu dira, erotismoaren sublimazio nagusia agertuz.

Inoiz ikusi bako maitale kutuna  
Nire opa samurrok laztanduten dabe  
Begi gelgarritz dargist bijotzeko illuna,  
Eta bere larrosak usainduten nabe.

Zerutar egak ditu maitasun zaliak;  
Lurrera baxen sarri so-dagi ortzira.  
Bere leuntasun ziar musu sutsubenak  
Espan ganian, otoi bijurtuten dira

(*Bide barrijak*, 42)

Idealizatuz eta maitea zerutar bihurturik agertu du Lauaxetak oraindik eza-gutu ez duen emakumea, bere “zerutar egoak” aipatuz, bate ere.

Emakumearen irudia dela eta, Santiren kasua askoz ere aipagarriagoa da, zeren Ana Marik, berak maite izan zuen emakumearen alabak, ordezkapen papera bete du bere irudimenean, berak bete ez zuen bizitza beteko dute Ana Marik eta

Joxe Migelek, eta joera horrek azterketa freudianoaren bideak zabaltzen ditu, nahiz eta hortik jarraituko ez dugun.

### 3. Lauaxeta eta abangoardia poesia

*El Caserío* zarzuelaren eta Lauaxetaren poesiaren artean beste zubi batzuk egon badaude ere, adibidez, gaztaroaren bidetik, kirolaren presentzia giro kultural osoan, egunsentiaren erabilera sinbolikoa, jaien eta erromerien deskribapen zabala iden-



Esteban Urkiaga, Lauaxeta. Jatorria: Lauaxetaren familia. Foto Garay. Bilbo.

titatearen batasunaren agerbide gisa, herri formen erretorikaren erabilera: paralelismoak, kontrakotasunak..., herri formen sinboloak eta loreen hizkeraren agerpena... giro kulturalaren azterketak konparaketa zabalago bat egiteko aukera ematen du, baina beste arazo bat hartu nahi nuke artikuluari bukaera emateko. Orain arte Lauaxetaren poesia alde modernistan eta ideologikoki konterbatzailean ikusi dugu. Eta oro har horrelakoxea zen euskal poesia, ez baitzuen egin abangoardia poetikora hurbiltzeko ahaleginik, batez ere abangoardia poetikoa komunisten adierazpen poetikoa zelako, eta garbi dago euskal poetak ez zirela komunistak. Dena dela, abangoardiaren falta dela eta, Lauaxetaren poesian aurkitzen da euskal poesiak abangoardiara hurbiltzeko egin zuen adibide bakarra, edo bakarre-

netarikoa. “Langille eraildu bati” (AB, 79-81) poeman Lauaxetak Bilboko ibaiaren ertzak tranbia baten dardarekin konparatu du:

“Nerbioi ertzok-tranbi dardara”.

Tranbiaren dardara horrek Marinettiren futurismoa dakar gogora. Eta ez da hutsala ingurugiro horretan futurismoa aukeratu izana Lauaxetak abangoardiara hurbiltzeko. Aitortu behar da, dena dela, bere kontraesanen agerbidea eginik, idatzi zuela –bera bada, behintzat, zeren sinadura ez da garbi geratu poema argitaratu zuen *Euzkadi* egunkarian– kutsu surrealista duen testua, sexualitate eta erotismoarekin lotua: “Mutxundiñaren ametsak”, baina molde poetiko modernistan idatzia. Hau da, nahiz eta esanahiez aurreratua izan, poemak ezin izan zituen joera zaharrak ahaztu, eta molde poetikoan agertu ziren horiek.

## Bibliografia

ARISTIMUÑO, Jose, Aitzol. *Idazlan Guztiak. Obras Completas. 3. Literatura Inguruan*. Donostia: Erein, 1986.

—. *Idazlan Guztiak. Obras Completas. 6. Impulsor del renacimiento Cultural Vasco y Social Cristiano. Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile II*. Erein. Donostia: Erein, 1987.

ARIZAMENA, Jesús María. *Jesús Guridi. Inventario de su vida y de su música*. Madrid: Editora Nacional, 1967.

BOU, Enric. *Pintura en el aire. Arte y Literatura en la Modernidad*. Valencia: Pre-textos, 2001.

EVEN ZOHAR, Itamar. "La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa". En: VILLANUEVA, Darío (editor). *Avances en Teoría Literaria*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 1994; pp. 357-377.

GURIDI, Jesús; ROMERO, F.; FERNÁNDEZ SHAW. *El Caserío*. Barcelona: Novoson, 2009. CD.

NAGORE, María. "La utilización del folklore en la obra de Jesús Guridi. Las Diez melodías vascas". En: *Musiker. Cuadernos de Música*, 10. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1998; pp. 73-86.

THIÈSSE ANNE MARIE. *La creación de las identidades nacionales. Europa: siglos XVIII-XX*. Santiago de Compostela, Madrid: Ézaro, 2010.

RUIZ DESCAMPS, Nicolás. "Música y nacionalismo vasco. La labor musical de Juventud Vasca de Bilbao y el uso de la música como medio de propaganda política (1904-1923)". En: *Musiker. Cuadernos de Música*, 17. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 2010; pp. 151-210.

SALABERRI, Sabin. *Jesús Guridi (1886-1961)*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. Bidegileak. 2005.

—. "Jesús Guridi: El Caserío". *Euskonews*. 598, 2011. [www.euskonews.com/0598zblk/gaia59802.es.html](http://www.euskonews.com/0598zblk/gaia59802.es.html).

URKIAGA, Estepan. *Bide barriak*. Faksimile argitalpena. Atenea. Madril: Atenea, 2005.

—. *Arrats Beran*. Faksimile argitalpena. Atenea. Madril: Atenea, 2005.